



GERRA ZIBILA DURANGALDEAN
[1936-1937]
LA GUERRA CIVIL EN EL DURANGUESADO

Jon Irazabal Agirre
–Gerediaga Elkartea–

© Jon Irazabal Agirre

© Edizio honena Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea

Lege Gordailu: BI-1052-07

ISBN: 84-933999-7-3

Argitaldaria: Gerediaga Elkartea

Astolako auzitegi etxea z/g

48220 Abadiño

Lehen edizioa: 2007 martxoan [1.000 ale]

Berekinza inprimategian [Bilbo] prestatua eta inprimatua

Azaleko argazkia: Itxarkundia batailoia

[Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa]

GERRA ZIBILA DURANGALDEAN
[1936-1937]
LA GUERRA CIVIL EN EL DURANGUESADO

Jon Irazabal Agirre
-Gerediaga Elkarte-

Aurkibidea / Sumario

• Hitz bi	5
• Gerra baten atarikoa / 1936ko uztailaren 18a <i>Preludios de una guerra / 18 de julio de 1936</i>	7
• Otxandioko bonbardaketa / <i>Bombardeo de Otxandio</i>	8
• Aldarrikapenetik gerra zibilera / <i>De pronunciamiento a guerra civil</i>	10
• Durangoko lehen bonbardaketa / <i>Primer bombardeo de Durango</i>	11
• Frontea egonkortzea / <i>Estabilización del frente</i>	12
• Legutioko guda / <i>La batalla de Villarreal</i>	14
• Esperoan / <i>En espera</i>	17
• Eraso orokorra / <i>Ofensiva general</i>	18
• Durango eta Elorrioko bonbardaketak / <i>Bombardeo de Durango y Elorrio</i>	20
• Saibigain / <i>Saibigain</i>	24
• Intxortaren eroraldia. Durangaldearen gainbehera / <i>Caída del Intxorta. Derrumbe del Duranguesado</i>	27
• Durangoren eroraldia / <i>Caída de Durango</i>	30



Kalamuan atsedenaldia / *Descanso en el Kalamua.*
[Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa]

**Angel Ariznabarreta "Iribe"-ri...
Itxarkundiarekin Durangaldean
borrokatu zuen giputzari**

Hitz bi eta kriselu bat...

70 urte igaro dira gure eskualdean 40 urteko diktadura ekarriko zuen, guda zibila izan genuenetik. 309 egun iraun zuen gerra giroak gure eskualdean, uztailaren 18tik maiatzaren 22a, Mañariko elizatea Molaren soldaduak menperatu arte...

Epe horretan eta ondorengo urteetan ehunka pertsonak aurkitu zuten heriotza gure mendi eta kaleetan, milaka zaurituak eta elbarritu gelditu ziren, etxeak galdu zituzten, eta erbesteratu, kartzelatu edo fusilatuak izan ziren. Askoren bekatu bakarra askatasuna maitatzea eta bere alde borrokatzea zen, beste batzuen momentu batean toki ez egokian egotea...

Irakurle, hurrengo orrietan saiatu gara laburbiltzen garai hartako gertakizunen kronika, urte askotan lapurtutako gure historiaren orritxo batzuk berreskuratzeko asmoarekin. Garratzak dira, gerra guztiak diren bezala, hau gainera garratzagoa anai artekoa izanik...

Bukatzekeo esperantza bat, egun beltzetan gertatutakoa ezagutzea izan dadila berriro gertatu ez dadin...



Durangoko pilotalekua 1936. urtearen hasieran. Hormetan, urte hartan, otsailaren 16an, ospatuko ziren hauteskundeen propaganda / *Frontón de Durango en 1936. En las paredes propaganda de las elecciones que se celebrarían el 16 de febrero de dicho año.*

[Foto Sol artxibategia].

Gerra baten atarikoak

1936ko otsailaren 16an hauteskunde orokor-
rrak egin ziren eta Fronte Popularra izan zen
garaile. Espainiako eskuinak ez zituen onartu
hauteskunderen emaitzak eta estatu kolpea
egiteko prestatu zen militarren laguntzaz.
Erreketek entrenamendu militarra gogortu
zuten. Bizkaian 3.200 erreketek inguru zeuden.
Durangaldea ere ez zen mugimendu horietatik
aparte gelditu. Durangokoak gerrillako
taktiketan aritu ziren entrenatzen Urkiolan,
lotsa barik eta inpunitate osoz. Altxamendua-
ren eguna baino egun batzuk lehenago, fusilez,
ehiza-eskopetez eta postako kartutxoiez
hornitu ziren.

1936ko uztailaren 18a

Mola jeneralak bat egin zuen Francok Ceutan
eta Melillan hasitako altxamenduekin, eta Iru-
ña eta Gasteiz erreboltairen alde agertu zi-
ren. Donostian militarrek altxatu ziren baina
errepublikaren aldeko indarrek mendea har-
tu zituzten.

Bilbon altxamendua mendea hartu zuten eta
ordena publikoko eta guardia zibileko inda-
rrak errepublikako gobernuaren alde agertu
ziren. Durangon, uztailaren 18an, erreketek
Garai mendian batu ziren: armak jaso zituz-
ten eta Durangoko guardia zibila noiz altxatu-
ko zain gelditu ziren. Guardia zibila errepu-
blikarekiko leiala agertu zen. Plan horrek
porrot egin zuela ikusita, tradizionalistek
erreboltairen taldeak egin zuten ihes eta 25

Preludios de una guerra

*El 16 de febrero de 1936 se celebran las elec-
ciones generales, siendo ganador de las mis-
mas el Frente Popular. La derecha española
no asume los resultados de las elecciones y se
presta para una intervención golpista con el
apoyo del estamento militar. El requeté recru-
dece su entrenamiento militar. En Vizcaya se
considera que hay organizados en torno a
3.200 requetés. El Duranguesado no es ajeno
a estos movimientos. Los de Durango se en-
treñan en tácticas de guerrilla en Urkiola con
total descaro e impunidad. Próximo el día de
la sublevación se aprovisionan de fusiles, es-
copetas de caza y cartuchos con posta.*

18 de julio de 1936

*El general Mola se suma a la sublevación ini-
ciada por Franco en Ceuta y Melilla, decan-
tando hacia el bando rebelde Pamplona y Vi-
toria. En Donostia se sublevaron los militares
pero son neutralizados por las fuerzas repu-
blicas.*

*En Bilbao la sublevación había sido neutrali-
zada y las fuerzas de orden público y Guar-
dia Civil se posiciona a favor del Gobierno re-
publicano. En Durango, el 18 de julio, el
requeté se concentra en un monte de Garai
donde reciben más armas y esperan a que la
Guardia Civil de Durango se subleve. La
Guardia Civil se muestra leal a la República.
Ante el fracaso de sus planes los tradiciona-
listas implicados huyen al campo rebelde*

atxilotu zituzten bandoa aldatzeko ahalegine-tan. Ezkerreko alderdiek eta sindikatuek defentsarako batzorde bat eratu zuten Duran-gon. Abertzaleak, hasieran, esperoan egon ziren, eta 26an defentsa batzordean sartu ziren.

Altzamenduak ezustean harrapatu zituen militarrak eta monarkia zaleak Durangaldean, adibidez Javier Lauzirika apezpikua edo Esteban Bilbao Egia udako egoitzetara aldatu zirenak Elorrio eta Zaldibarko bainuetxeetara. Batzuk kartzelan sartu eta beste batzuk truckatu egin zituzten; Esteban Bilbao, adibidez, Ernesto Erkoreka Bilboko alkatearekin truckatu zuten.

Jose Etxeberria Novoa Bizkaiko gobernadore zibilak boterea bereganatu eta, ezkerreko alderdiekin eta EAJrekin, errepublikaren aldeko defentsa antolatu zuen. Uztailaren 20an Bilbon antolaturiko talde armatu bat Otxandiora abiatu zen Gasteizetik eta Bizkairako balizko eraso geldiarazteko. Legutio mendean hartu zuten, eta guardia zibila tiro bat bera ere jo barik errenditu zen. Talde armatuak akats larria egin zuen Otxandiora erretiratuta Legutioiko posizioa sendotu beharrean. Errepublikaren aldeko indarrek ez zuten inoiz berreskuratatu Legutio.

Otxandioko bonbardaketa

Uztailaren 22ko goizeko 9etatik 9:30era, Logroñoeko aerodromotik zetozen hegaztiak, Angel Salas Larrazabalek eta Jose Muñoz Jimenez

siendo detenidos 25 en el intento de cambiar de bando. Los partidos y sindicatos izquierdistas forman un Comité de Defensa en Durango. Los nacionalistas, al inicio, se mantienen a la expectativa, integrándose en el Comité de Defensa el 26.

La sublevación sorprende en el Duranguesado a militares, así como a monárquicos; por ejemplo, el obispo Javier Lauzirica o Esteban de Bilbao y Eguía que se habían trasladado a sus residencias de verano o a los balnearios de Elorrio y Zaldibar. Algunos serán encarcelados o intercambiados, como lo fue Esteban Bilbao por Ernesto Ercoreca, alcalde de Bilbao.

José Echeverría Novoa, Gobernador Civil de Bizkaia, asume el poder y, conjuntamente con los partidos de izquierda y el PNV, organiza la defensa de la República. El 20 de julio una columna armada organizada en Bilbao se traslada a Otxandio con la pretensión de frenar un posible ataque desde Vitoria hacia Bizkaia. Ocupan Legutio donde la Guardia Civil se rinde sin disparar un solo tiro. La columna comete un grave error al retirarse a Otxandio en lugar de consolidar la posición de Legutio. Legutio nunca sería nuevamente recuperado por las fuerzas republicanas.

Bombardeo de Otxandio

El día 22 de julio, entre las 9 y las 9.30 de la mañana, dos aviones pilotados por Ángel Salas Larrazabal y José Muñoz Jiménez procedentes del aeródromo de Logroño se aproximan a la villa de Otxandio. Los niños corrían



Otxandioko Andikona plaza. Eskuman bonbardaketaren behin behineko konponketak teiltuan /
Plaza Andikona de Otxandio. A la derecha reparación provisional de los destrozos del bombardeo.
[Durangaldeko dokumentategia. Gerediaga elkartea].

gidatuta, Otxandio hirira hurbildu ziren. Umeak Andikona plazan zebiltzan lasterka, bertan jolasten baitzuten, besteak beste. Emakumeak ur bila hurbiltzen ari ziren iturrira edo errekaiko ikuztegietan arropa garbitzeko. Soldaduek bertan ezarri zuten agintaritzagunea.

Umeak eta nagusiak hegazkinen hegaldariari begira zeuden. Halako batean, pilotuak zerbait jaurtitzen ari zirela ikusi zuten; hasiera batean orriak, gozokiak edo antzeko zerbait zirela pentsatu zuten. Baina bonbak ziren. Tragedia Andikona plazan gauzatu zen. Bonbek umeak, emakumeak eta gudariak harrapatu zituzten eta hondamendia eragin zuten: gorpu hautsiak, oihuak, erreka isurtzen zen odola...

Herritarrak berehala antolatu ziren zaurituei laguntza emateko eta Bilbora eta Durangora eramateko, autoetan, kamioietan edo beste edozein garraibidetan. Haietako asko kamioietan hil ziren eta beste batzuk ospitaleetan. Bonbardaketaren ondorioz, zaurituak ez ezik 58 hildako ere izan ziren. Biktimarik gehienak umeak eta emakumeak izan ziren. Hildako gudariak eta milizianoak gutxi batzuk izan ziren. Zorionak eman zizkien Emiliano Mola jeneralak pilotuei eginiko lanagatik.

Aldarrikapenetik gerra zibilera

Lehenengo hiletan errepublikaren aldeko indarrak errepublikarekiko gune leialetan "lotan" zeuden erreboltariak indargabetzen saiatu ziren. Horren ondorioz, errepublikaren kontrako pertsona asko atxilotu ziren, Duran-

por la plaza de Andikona uno de sus lugares habituales de juego. Las mujeres se acercaban en busca de agua a la fuente o a lavar la ropa en los lavaderos del riachuelo. Los soldados habían instalado en este lugar su intendencia.

Los niños y los mayores observan el vuelo de las avionetas. En un momento ven cómo los pilotos arrojan unas cosas, que en un principio hay quien piensa que son hojas, caramelos o algo parecido. Lo arrojado son varias bombas. La negra tragedia se cierne sobre la pequeña plaza de Andikona. Las bombas alcanzan a los niños, mujeres y soldados creando una dantesca imagen de cuerpos destrozados, gritos, sangre fluyendo al riachuelo...

Rápidamente los vecinos se organizan e inicia las ayudas a los heridos y la evacuación de los mismos hacia Bilbao y hacia Durango en coches, camiones o cualquier otro medio de transporte. Muchos de ellos fallecerán en el camino y otros en los hospitales. El bombardeo, además de decenas de heridos, causa 58 muertos. La mayoría de las víctimas son niños y mujeres. Los soldados y milicianos muertos son una minoría. Los aviadores fueron felicitados por el general Emiliano Mola.

De pronunciamiento a guerra civil

En los primeros meses las fuerzas republicanas tratan de neutralizar los focos rebeldes que hayan quedado "dormidos" en las áreas fieles a la República. Ello genera la detención

gon, Elorrión, Otxandion eta beste herri batzuetan. Batzuk askatu ziren eta bestetzuk Bilbora eraman zituzten preso egiteko. Beste batzuk hil egin ziren bando batetik besterako frontearen zeharkatzeko ahaleginetan.

Otxandioko frontearen hurbil zegoenez eta Gipuzkoako frontearen pixkanaka Durangaldera hurreratzeko ari zenez, beharrezkoa izan zen zenbait eraikin kaserna moduan edo beste erabilera militar batzuetarako hartzea. Horregatik hartu ziren Durangoko Jesuiten eraikina, San Antonio komentua eta Sta. Susana komentua. Geroago, Ermua, Elorrión, Iurreta eta Durangoko Uribarriko Andre Maria elizak hartu ziren, besteak beste. Elizak, ikastetxeak, komentuak, etab. helburu militarerako erabili ziren gerra osoan, eta era askotako erlazioak izan ziren: zenbait kasutan onak eta beste batzuetan gatazkak gertatu ziren.

Errepublikaren aldeko indarrak ez ziren oztopo handia izan Mola jeneralaren Gipuzkoako tropentzat. Hilaren 21ean Molak Elgoibar eta Arlaban mendatea hartu zituen. Hurrengo egunean, hilaren 22an, Bergaraz jabetu zen. Bi hilean Gipuzkoako frontearen Durangaldeko mugetan kokatu zen. Molak esku-paperak jaurti zituen, irailaren 25etik aurrera beharrezkotzat jotzen zuen indarkeriarekin jardungo zuela jakinarazteko.

Durangoko lehen bonbardaketa

Irailaren 25eko, 11etan, bonbak jaurti zituzten Durangon, lau gutxira, eta horietako bat

de numerosos elementos desafectos a la República tanto en Durango como en Elorrión, Otxandio y otras localidades. Unos son puestos en libertad, otros trasladados a Bilbao donde quedan presos o confinados. Otras personas resultarán muertas al tratar de cruzar el frente de uno a otro bando.

La proximidad del frente de Otxandio y el paulatino acercamiento del frente de Gipuzkoa a las tierras del Duranguesado hace necesario habilitar lugares para su uso como cuartel u otros usos militares, por ello son ocupados los Jesuitas, el convento de San Antonio, el de Sta. Susana de Durango. En fechas posteriores se ocuparán las iglesias de Ermua, Elorrión, Iurreta, Santa María de Urbarri en Durango, etc. Esta habilitación para fines militares de iglesias, colegios, conventos, etc. se darán durante toda la contienda, siendo las relaciones dispares, buenas en muchos casos, y con desmanes en otros.

Las fuerzas leales a la República no ofrecen gran oposición a las tropas del General Mola en Gipuzkoa. El día 21 Mola toma Elgoibar y el puerto de Arlaban. Al día siguiente, 22, toma Bergara. En dos meses el frente de Gipuzkoa se ha situado en los límites del Duranguesado. Mola lanza octavillas dando a conocer que a partir del 25 de septiembre actuará con la violencia que crea necesaria.

Primer bombardeo de Durango

El 25 de septiembre, hacia las 11 horas, Durango es bombardeado. Son arrojadas cuatro

Ezkurdiko pilotalekuan erori zen. Ondorioz, 12 hildako eta zauritu asko izan ziren Gipuzkoatik ihes egin ondoren atsedena hartzen eta pilotan jokatzeko ari ziren miliziano eta iheslarien talde batean. Beste bat Marcos Unamunzaga medikuaren baratzean jausi zen eta beste biak trenbide geltokian. Hildakoen artean ez zen durangarrik egon.

Bonbardaketaren ondoren, miliziano talde bat kartzelara abiatu zen eta frankisten aldekoak omen ziren 22 preso atera zituzten. Hilerrira eramanez ondoren, fusilatu egin zituzten aurretik epaiketarik egin barik.

EAJko kideek ezkutatu eta babestu nahi zituzten Durangoko beste eskuindar batzuk atxilotu eta fusilatzen saiatu ziren milizianoak. Bilbon ere bonbardaketa egin zen eta hildako ugari eragin zituen. Irailaren 26an ere bonbardaketa gehiago izan ziren. Eragindako heriotzengatik, Altuna-Mendi eta Kilates Lurmuturra itsasontzi-kartzeletan izan ziren erasoak eta hainbat preso hil zituzten. Urriaren 2an eta urtarrilaren 4an berriz ere sartu ziren Bilboko kartzeletan, non Durangaldeko hainbat herritar hil ziren.

Frontea egonkortzea

Hilaren 25ean Mola jeneralaren tropek Eibarren kontrako erasoak egin zuten baina Kalamua inguruan geldiarazi zituzten. Elgetan karlistak Jasokundearen ermitaraino sartu ziren. Hilaren 26an Mola jeneralak Arrasate hartu zuen. Fronte berria Ondarroa, Elgoibar,

bombas, cayendo una de ellas en el Frontón de Ezkurdi causando 12 muertos y gran número de heridos entre un grupo de milicianos y refugiados huidos de Gipuzkoa, que se hallan descansando y jugando a pelota. Otra cae en la huerta del médico Marcos Unamunzaga y dos en la estación del ferrocarril. Entre los muertos no hay ningún durangués.

Tras el bombardeo, un grupo de milicianos enardecidos se dirige a la cárcel, sacan de la misma a 22 presos que se hallan detenidos por presunta afinidad con los sublevados. Traslados al cementerio, los fusilan sin ningún juicio previo.

Los milicianos tratan de detener y fusilar a otros derechistas de Durango que fueron ocultados y protegidos por miembros del PNV. También Bilbao es bombardeada este día causando gran número de víctimas. Los bombardeos continúan el día 26. En venganza a las muertes causadas, son asaltados los barcos-prisión Altuna-Mendi y Cabo Quilates, siendo muertos diversos prisioneros. El día 2 de octubre, así como el 4 de enero serán nuevamente asaltadas las cárceles de Bilbao. En estos asaltos morirán varios vecinos del Duranguesado.

Estabilización del frente

El día 25 las tropas de Mola atacan el sector de Eibar siendo contenidas en torno al Kalamua. En Elgeta las fuerzas carlistas penetran hasta la ermita de la Ascensión. El día 26 el



Frentean / *En el frente.*
[Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa].

Bergara, Arrasate, Otxandion... zegoen orduan, hots, Durangaldeko "ateetan". Borrokek urriaren 8ra arte iraun zuten.

Urriaren 4an erreketek Intxortako posizioen kontrako erasoak egin zuten. Aurreko erasoak porrot egin zuen baina Gaztelumendiz eta beste posizio batzuek jabetu ziren. Biharamunean, urriaren 5ean, gudariek Gaztelumendi berreskuratzen zuten. Negua eta tropen egoera zirela-eta, Mola jeneralak erasoak gelditu behar izan zuen eta frontea egonkortu egin zen udaberriaren zain.

Urriaren 7an Eusko Jaurlaritza eratu zen Gernikan Jose Antonio Agirre Lekube lehendakaria zela; indarrak biltzeko gobernua izan zen.

Urriaren eta azaroaren atxiloteta gehiago eta epaiketak gabeko fusilatu gehiago izan ziren. Azaroaren 6an Elorriko bost tradizionalista hil zituzten Abadiñon.

Legutioko guda

Agintari militarrek Gasteiz erasotzea eta hartzea erabaki zuten 1936ko azaroan, Sevilla eta Irungo muga lotzen zituzten komunikabideak ixteko eta, hala, Berlinekiko komunikabideak ere ixteko.

Erasoa hiru ardatzetan burutu zen. Lehenengo Amurriotik Murgia-Barandio hartzeko. Bigarrenean Otxandiotik abiatu eta Legutio hartzeko ahaleginak egitea zen helburua. Eta hirugarren frontea Arlaban eta Izuskizaren kontrako borrokan aritu zen, toki horiek har-

general Mola toma Mondragón. El nuevo frente se sitúa en Ondárroa, Elgoibar, Bergara, Mondragón, Otxandio..., es decir, a las "puertas" del Duranguesado. Los combates continúan hasta el día 8 de octubre.

El día 4, los requetés atacan las posiciones del Intxorta. Fracasa el ataque frontal pero toman Gaztelumendi y otras posiciones. Al día siguiente, 5 de octubre, los gudarís recuperan el Gaztelumendi. El invierno y la situación de las tropas obligan a Mola a parar sus ataques y el frente se estabiliza en espera de la primavera.

El 7 de octubre se constituye el Gobierno Vasco en Gernika bajo la presidencia de José Antonio Agirre y Lekube, que configura un ejecutivo de concentración.

En octubre y noviembre continúan produciéndose detenciones así como muertes extrajudiciales. El 6 de noviembre son muertos, en Abadiño, 5 vecinos tradicionalistas de Elorrio.

La batalla de Villarreal

El mando militar determinó en noviembre de 1936 atacar y tomar Vitoria para de esta forma cortar las comunicaciones que unían Sevilla con la frontera de Irún y, consecuentemente, con Berlín.

El ataque se efectuaría en base a tres ejes. El primero desde Amurrio, para ocupar Murgia-Barandio. El segundo partiría de Otxan-

tuta Arabako ordokitik aurrera egin eta Gas-teiz hartzeko.

Santanderreko armadak Espinosa de los Mon-terosen kontrako erasoak egin nahi zuen, ondoren Traspaderneko igarota Miranda era-sotzeko; izan ere, herri garrantzitsua zen Mi-randa. Plan horiek ikusita, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi zuen Murgiaren kontrako erasoak.

Erasoak hilaren 30ean hasi zen. Artilleria pre-statu ondoren, euskal infanteria Ubidea, Otxandio eta Kanpazarretik hasi zen erasoan. Tropek Legutio inguratu zuten eta 3 kilome-trora gelditu ziren hirigunetik. Eskuineko al-detik, Etxaguren, Nafarrate eta Urrunaga okupatu zituzten.

Biharamunean, abenduaren 1ean, Legutioaren kontrako borrokek jarraitu zuten baina eutsi egin zitzaizkien guzti-guztiei. Abenduaren 2an Legutioetik hurbil zegoen pinudi bat hartu zu-ten eta posizio horretatik hesituta izan zuten Legutio, baina eusko armadak akats bat egin zuen. Murgia-Barandioaren kontrako erasoak egin ez zuten gero, ez zen itxi Gasteizeko errepidea; Alonso Vegak eta Mola jeneralak errefortzuak bidali ahal izan zituzten inguru hartara eta eusko armadak zuen Legutio hesi-tua hautsi ahal izan zuten. Hurrengo egune-tako erasoak kainoikada monotonoak baino ez ziren izan. Hilaren 10ean, erasoak jo baina eutsi egin zioten. Hurrengo egunetako borro-ketan kainoi hotsak eta bonbardaketak izan ziren Legutio, erreketean posizioak desegin nahian, baina erreketeei eutsi egin zioten.

dio y se trataría de tomar Villarreal. Y el ter-cero atacarían Arlaban e Izusquiza para una vez tomadas estas posiciones avanzar por la Llanada hasta la toma de Vitoria.

El ejército de Santander proyecta atacar Es-pinosa de los Monteros, para posteriormente, por Traspaderne, atacar Miranda, localidad de gran importancia. Ante estos planes, el Gobierno vasco anula el ataque a Murgia.

El ataque se inicia el día 30. Tras la prepara-ción artillera la infantería vasca inicia el ata-que desde Ubidea, Otxandio y Campazar. Las tropas cercan Villarreal acercándose a 3 kiló-metros del casco urbano. Por el lado derecho se ocupan Etxaguren, Nafarrate y Urrunaga.

Al día siguiente, 1 de diciembre, continúan los ataques a Villarreal que son rechazados uno tras otro. El día 2 de diciembre se toma un pinar cercano a Villarreal y de esta posi-ción se mantiene el cerco a Villarreal pero el ejército vasco ha cometido un error. Al no haber atacado Murgia-Barandío no se cortó la carretera de Vitoria y Alonso Vega y el Gene-ral Mola pueden enviar refuerzos a la zona y romper el cerco que mantenía el ejército vasco sobre Villarreal. Durante los siguientes días los ataques se reducen a monótonos cañoneos. El día 10 se lanza un ataque que es rechaza-do. Continúa el cañoneo y el bombardeo de Villarreal tratando de destruir las posiciones de los requetés, pero éstos resisten. El 12 se toma Isusendi a 4 kilómetros de Villarreal y el 18 de diciembre se lanza el último ataque que también es rechazado por los defensores



“L’Illustration” aldizkariaren azala /
Portada de la revista “L’Illustration”.
[Durangaldeko dokumentategia. Gerediaga elkarte].

Hilaren 12an Isusendi hartu zuten Legutiotik 4 kilometroa, eta abenduaren 18an azken eraso jo zuten baina Legutio defendatzen ari zirenek eutsi egin zioten. Eraso haien ondotik, frontea egonkortu egin zen 1937ko martxoaren amaierara arte.

Esperooan

1937ko otsailaren 27an, Alejandro Goikoetxea Omar kapitain elorriarrak, Bizkaiko defentsen arduradunak, erreboltarien taldera alde egin zuen eta berekin eraman zuen Bizkaiko defentsaren sistema.

Eusko Jaurlaritzak arazo larri bati egin behar izan zion aurre: jendea batetik bestera igarotzen zen. 1937ko urtarrilean, alde batetik bestera igarotzeko sare bat aurkitu zuten Zaldibar-Mallabia-Ermua inguruan. Bata Urkotik, beste bat Elgetatik eta hirugarrena Ermutik. Zaldibarren hasi zen ihes egiteko sare hori; sare horretan koba bat zuten prestatuta, non iheslariak ezkutatzen baitziren beste bandora pasatzeko modua izan arte. Frankisten eremura iritsitakoan, Donostia irratia esaldi hau emititu zuen senitartekoei frontera pasatzea arrakastatsua izan zela jakinarazteko: “Requien constimpacen konpaina onik dago”. Zaldibarko parrokoa, Mallabiako alkatea eta beste pertsona batzuk ikertu ziren sare horretan parte hartu zutelakoan. Ikerketa haien ondoren, hainbat herritar atxilotu eta Bilboko kartzelara eraman zituzten eta bertan epaitu behar zituzten martxoaren 30ean. Epaiketa

de Villarreal. Tras estos ataques el frente se estabiliza hasta finales de marzo de 1937.

En espera

El 27 de febrero de 1937, el capitán Alejandro Goikoetxea Omar, natural de Elorrio, responsable de las defensas de Bizkaia, se evade al campo rebelde llevándose el sistema defensivo de Bizkaia.

El Gobierno vasco se enfrenta al grave problema que constituye el paso de gente de una zona a otra. En enero de 1937 descubren en la zona de Zaldibar-Mallabia-Ermua una red de paso de gente de una zona a otra. Una por Urko, otra por Elgeta y la tercera por Ermua. El inicio de esta red de evasión se halla en Zaldibar donde tienen preparada una cueva donde se esconden los prófugos hasta que es posible pasarles de bando. Una vez en territorio franquista, radio San Sebastián emitía la frase “La compañía requien constimpacen se encuentra bien”, para indicar a los familiares que el paso del frente había salido bien. El párroco de Zaldibar, el cura y el alcalde de Mallabia y otras personas son investigadas por participar en dicha red. A raíz de las averiguaciones son detenidos y trasladados a la cárcel de Bilbao diversos vecinos que serán juzgados el día 30 de marzo. Aplazado el juicio, circunstancias de guerra impiden posteriormente celebrarlo.

Por otro lado, del 24 al 28 de febrero de 1937 se juzgó en Bilbao a un numeroso grupo de

atzeratuta, gerrako gorabeherak zirela-eta ondoren ezin izan ziren epaiketak egin.

Bestalde, 1937ko otsailaren 24tik 28ra, 1936ko uztailaren 18an altxamendu saioak egin zituen “Tabirako talde subertsibo”ko durangar talde handi bat epaitu zuten Bilbon. Epai hartan heriotzara zigortu zituzten 13 lagun. Horietatik 11 ihes eginda zeuden, baina Luis Arratibel Ugarriza eta Jaime Zuloaga Aldekoa kartzelan zeuden. Eusko Jaurlaritzak Ksawery Pruszyński kazetari poloniarren erreguak eta presioak jaso zituen, baita Durangoko errepublikako udalaren eskaera ere, zigorrak barkatzeko hain zuzen. Martxoaren 3an Jose Antonio Agirre lehendakariak eskaerak onartu zituen eta barkatu egin zien heriotza-zigorra Arratibel eta Zuloagari.

Eraso orokorra

Martxoaren 31n, asteazkenean, Mola jeneralak eraso orokorrari ekin zion iparraldeko frontea desagerrarazteko asmoarekin, Bizkaitik Asturiasera zihoan frontea hain zuzen. Borrokak hasi eta Zarimuz, Mazmela eta Untzillako biztanle-guneak okupatu zituzten. 3. brigadak Asensiomendi okupatu zuen. 4. brigadak eraso jo eta Albertia konkistatu zuen “Meabe 2” batailoien kontrako borroka gogorra izanda, eta gainera “Abellaneda” batailoia defendatzen ari ziren Maroto eta Jarindo hartu zituzten.

Hilaren 1ean, eusko gudalozteek Gurutzeta, San Kristobal, 694. kota eta “Azaña” batailoia

durangueses componentes del “grupo subversivo de Tabira” que habían intentado sublevarse en Durango el 18 de julio de 1936. En la sentencia 13 son condenados a la pena de muerte. 11 de ellos están fugados pero Luis Arratibel Ugarriza y Jaime Zuloaga Aldekoa están en prisión. El Gobierno vasco recibe los ruegos y presiones del periodista polaco Ksawery Pruszyński así como la petición del Ayuntamiento Republicano de Durango solicitando la conmutación de las penas. El día 3 de marzo el presidente José Antonio Agirre accede a las peticiones y conmuta las penas de muerte de Arratibel y Zuloaga.

Ofensiva general

El 31 de marzo, miércoles, el general Mola inicia la ofensiva general con la pretensión de eliminar el Frente del Norte que se extiende desde Bizkaia hasta Asturias. Se inician los combates ocupando los requetés los núcleos de Zarimuz, Mazmela y Uncella. La 3ª Brigada ocupa Asensiomendi. La 4ª Brigada ataca y conquista el Albertia tras duros combates contra el “Meabe nº 2”, así como el Maroto y el Jarindo que eran defendidos por el “Abellaneda”.

El día 1 las milicias vascas ceden Cruceta, San Cristobal, la cota 694 y San Adrián, que la defendía el “Azaña”. Los requetés también avanzan por Unceta hacia el norte. El día 2 se combate en las peñas de Arangio. Ocupado por los franquistas, los milicianos del



Durangoko Andra Mari kalea martxoaren 31an /
Calle Sta. María de Durango el 31 de marzo.
[Abertzaletasunaren agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa]

defendatzen ari zen San Adrian galdu zituzten. Erreketeak Untzetara hurbildu ziren iparralderantz. Hilaren 2an Arangioko haitzetan borrokatu ziren. Frankistek okupatu ondoren, "Meabe 2" batailoiko milizianoek kontraerasoa jo zuten eta galdutako posizioak berreskuratu zituzten. Hilaren 4an, erreketeek Olaeta hartu zuten eta ondoren Otxandio okupatu zuten. Eusko gudalozteak Urkiolarantz alde egin zuen. 3. brigadak albotik eta erretaguardiatik eraso jo zuen hainbat batailoiko defendatzen zuten Murugainen: "Salsamendi", "Meabe 1", "Gatzaren altxamendua" eta "Fermin Galan". Ehunka hildako eta preso izan ziren. Mekoletan ezarritako bigarren defentsa-lineak amore eman zuen eta gudariak eta milizianoek Ubiderantz alde egin behar izan zuten. Hilaren 4an 400 miliziano eta gudari baino gehiago harrapatu zituzten. Otxandioko hildakoak eta inguruko posizioak 400 -1000 ziren gutxi gorabehera. Giza tragedi handia gertatu zen hirian.

Durango eta Elorrioko bonbardaketak

Martxoaren 31ko goizeko 7etan, asteazkenean, bonbardaketa astuneko Savoia 21eko 24. taldeko 213 eta 214. eskoadriletako hegazkinak aieratu ziren eta, Logroñon Cr-32 ehiza-hegazkinekin bat egin ondoren, 213.a Elorriantz abiatu zen eta 214.a Durangorantz.

Goizeko 8:30ak zirela, 5 bonbaketari eta 9 kaza Durango bonbardatzen hasi ziren Kuru-

"Meabe nº 2" lanzan un contraataque con el que retoman las posiciones perdidas. El día 4, los requetés toman Olaeta y posteriormente ocupan Otxandio. Las milicias vascas se retiran hacia Urkiola. La 3ª Brigada asalta por el flanco y retaguardia el Murugain defendido por el "Salsamendi", "Meabe nº 1", "Rebelión de la Sal" y el "Fermín Galán". Son centenares los muertos así como los prisioneros. La segunda línea defensiva habilitada en Mecoleta es doblegada y los gudarís y milicianos se retiran a Ubidea. El día 4 son más de 400 los milicianos y gudarís que han sido capturados. Los muertos de Otxandio y las posiciones circundantes oscilan entre los 400 y más del millar. Una gran tragedia humana circunda la villa ferrona.

Bombardeo de Durango y Elorrio

El día 31 de marzo, miércoles, a las 7 de la mañana, los aviones de las escuadrillas 213 y 214 del grupo 24 de bombardeo pesado Savoia 21 despegan de Soria y tras reunirse en Logroño con los cazas Cr-32 enfilan la 213 hacia Elorrio y la 214 hacia Durango.

